



EUSKAL PERPAUSEN DANTZA

Menderakuntza bidezko perpausak -III-

- >Erlatibozkoak
- >Zehar-galderak

PROPOSAMENA

Bideo-gelara jo aurretik, erlatibozko perpausei buruzko orrialdeen kopiak ikasleei banatu, bertan agertzen diren kontzeptuak eta adibideak klasean landu eta ikasleen zalantzak argitu.

-ATALDRAMATIKO LUZEA: MIREIARENA

-Bost ikasleko taldeak egin.

-Gidoia irakurri, letra lodiz azpimarratutakoei arreta berezia jarritz.

-Gidoia ozen irakurri. Klaseko punta bateko ikaslea hasiko da gidoiko lehen pertsonaiak dioena irakurriz. Ondoren, haren alboko ikasleak irakurriko du erantzuna. Ondoren, azkenaren alboko ikasleak irakurriko du erantzuna.

Gidoia ikasle guztiek parte hartu baino lehen bukatuko balitz, azkenaren albokoak gidoiko lehen pertsonaiak dioena irakurriko luke. Horrela, ikasle guztiek parte hartu arte.

Ikasle guztiek parte hartu eta gidoia bukatu ez bada, lehenengo ikaslea hasiko da berriro, eta albokoak jarraituko, gidoia osorik irakurri arte.

Hori guztia egin eta gero, bideoa ikusiko dugu.

zehar-galderak

Zehar-galderak perpaus osagarrien antzekoak dira. Hori bai, zehar-galderek azpian galde-perpaua dute. Dena dela, zehar-galderek ere zer? Galderari erantzuten diote oro har, eta osagarri zuzenaren lekua hartzen dute.

-n, ea ...-n, -n ala ez / netz, ez dakit zer egin

MIREIARENA

- MIKEL.- Artaziak hor daude, Olatz?
- OLATZ.- Artaziak? Ez, ez dakit non dauden. Ez ditut aspaldi ikusi.
- MIKEL.- Lorea, zuk ibili dituzu orain gutxi, ezta?
- LOREA.- Bai, baina ez dakit non utzi ditudan. Paper artean egongo dira.
- OLATZ.- Kontuz ibili, Mikel! Dena nahastuko duzu, bestela.
- MIKEL.- Hara zer dioen besteak! ³Dena nahastuta dago eta.
- OLATZ.- Hasi al gara, Mikel? Urduri al zaude? Lasaitu, e?
- MIKEL.- Urduri ni? Jakin nahi nuke zergatik diozun hori.
- OLATZ.- Hasi gara! Badakizu zer pentsatu dudan, Mikel?
- MIKEL.- Ez eta ez dit axola. Artaziak non dauden jakin nahi dut, besterik ez.
- LOREA.- Niri, ordea, axola dit Olatzek pentsatu **duenak**.
- MIKEL.- Auskalo zer pentsatu duen. Bota, bota.
- OLATZ.- Badakit zergatik dagoen horren urduri Mikel.
- MIKEL.- A, bai? Kontxo, nik baino gehiago dakizu orduan!
- LOREA.- Nik ere badakidala uste dut.
- MIKEL.- Zuk ere bai? Zergatik nagoen hain urduri jakiteko irrikitan nago. Zuek bezalako sasi-psikologo birekin, salbatua sentitzen naiz.
- OLATZ.- Mireia datorrelako dago hain urduri.
- LOREA.- Iritzi berekoa naiz. Atzo makina bat aldiz galdetu zuen Mireia etorriko zen ala ez.
- MIKEL.- Pentsatzen duzuen, pentsatzen duzuela bost axola niri.

- OLATZ.-** Atzo, boligrafoa eskuan zuela, ea boligrafoa nork zeukan galdetu zuen, behin eta berriro.
- LOREA.-** Oroitzen dut. Ea urduri zegoen galdetu nion eta alde egin zuen.
- MIKEL.-** Sorgin peto-petoak zarete. Ni banoa.
- OLATZ.-** Artaziak hor daude Mikel, zure paperen gainean.
- MIKEL.-** Ez dakit zer egin.
- LOREA.-** O! Maitasuna. Esan eta kito!
- MIKEL.-** Pentsatu dut baina ez dakit ez zer esan, ez nola esan, ez noiz esan.
- LOREA.-** Ez duzu zertan kezkatu Mikel.
- MIKEL.-** Ez dudala zertan kezkatu? Beti, Mireia noiz etorriko zain egoten naiz, zerbait esateko ausardia izango dudalakoan, baina ez dut inoiz une aproposa aurkitzen.
- LOREA.-** Ai ene! Zure kasua benetan larria da, txikito. Ez nuen uste hainbestekoa zenik. Muineraino sartuta daukazu maitasunaren ziria. Badakizu zer erabaki dudan Mikel?
- MIKEL.-** Ez dakit, eta ez dakit jakin nahi dudan ere.
- LOREA.-** Utzi dena gure esku, eta alde hemendik.
- MIKEL.-** Baina erotu egin al zarete?
- OLATZ.-** Ez gara erotu Mikel. Ez daukazu zertan hemen egon. Alde hemendik eta ordu bi barru etorri.
- MIKEL.-** Ezta pentsatu ere!
- OLATZ.-** Zeuk ikusi. Gaur ala inoiz ez.
- MIKEL.-** Beldur naiz ez ote didazuen adarra joko.
- OLATZ.-** Alde hemendik Mireia etorri baino lehen.
- LOREA.-** A! Erosi arrosa gorri bat. Gustatuko zaio eta.
- MIKEL.-** Ez dakit.

Artaziak hor daude, Olatz?

Mendeko perpausa galdera bada *-n* menderagailua erabiltzen dugu.
Artaziak hor dauden galdetu du.

Artaziak hor daude, Mikel.

Menpeko perpausa adierazpena bada *-la* erabiltzen dugu.
Artaziak hor daudela esan dio.

Ea urduri **zegoen** galdetu nion.

Zehar-galderetan iraganeko adizkiek ez dute
inolako aldaketarik jasaten.

Ez, ez dakit **non dauden**. (non daude?)
Ez dakit **jakin nahi dudan**. (Jakin nahi dut?)

Euskaraz, erdaraz ez bezala, galdera-mota
guztiekin forma bera erabiltzen da.

Niri, ordea, axola dit Olatzek pentsatu **duenak**.

Kontuz ibili behar da zehar-galdera eta erlatiboa ez nahasteko.
Izan ere, *zer?* eta *zenbat?* galdetzaileekin egindako perpausok
erdaraz erlatibo-itxura hartzen duten arren,
euskaraz zehar-galderaren bitartez adierazi behar dira.

Ea artaziak non dauden jakin nahi dut, besterik ez.

Galdetzailea duten galderetan, perpaus nagusia falta denean
edo aginte-perpausa denean, normalean, goiko hori erabili ohi da.

Atzo makina bat aldiz galdetu zuen Mireia etorriko zen ala ez.

Egitura hori *-n* menderagailuaren forma indartua da, eta baietza ala ezetza azpimarratu nahi denean erabiltzen dira. Galdetzailerik ez daukaten galde-perpasekin erabiltzen da.

Pentsatu dut, baina ez dakit ez zer esan, ez nola esan, ez noiz esan.

Askotan, galdetzailea duten galde-perpaseen gainean eraikitako zehar-galderetan, aditz-partizipioa erabiltzen da, aditz laguntzailea eta menderagailua ezabatuz.

Ez duzu zertan kezkatu, Mikel.

Beharrik eza adierazteko, *zergatiken* ordeztan *zertan* galdetzailea erabili ohi da, behin baino gehiagotan.

Mireia noiz etorriko zain egoten naiz.

Esapide hau *zain egon* aditzaren bidez eratzen da eta etorkizunean gertatuko den zerbaiten zain gaudela adierazteko erabiltzen da.

Halakoetan, mendeko aditzak *-ko* etorkizuneko aspektu-marka hartzen du, eta, eskuarki, aditz laguntzailea ezabatu egiten da. Galdetzailea duten galde-perpasekin bakarrik erabiltzen da.

Ez dakit. Beldur naiz ez ote didazuen adarra joko.

Beldur izan aditzarekin maiz erabiltzen dira zehar-galderak. Ia beti, *ote* partikula erabiltzen da zalantza areagotzeko.